

ZAZPI TA ZORTZIGAREN BATZARALDEAK

(Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian, lotazilaren 22 ta 23'an).

ALKIETAN: Azkue, Agife, Broussain, Campion, Eleizalde, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide ta Urquijo.

1. Azken batzafaldearen ondorean euskaltzaiñ ufgazle-gaiak emandako erantzupenak Idazlariak aipatu-ta irakufi zituan: iru ezezko ta bi baiezko. Ezezkoak, E. Bustintza (Bizkaia), Georges Lacombe (Benabafe) ta B. Adema apaizarenak (au Lapurdikoa); baiezkoak, Teodoro de Arburua (Echalar, azar. 13) Napaftar ta J. Etchepare (Aldudes, azar. 20) benapaftafarenak.

Era berean euskaltzaiñ ufgazle batzuen onespén eta eskefak agertu zaizkigun: Carmelo de Echegaray (Gefnica, azil. 16), P. Manuel de Arriandiaga (Madrid, azil. 19) ta Albert Léon'enak (Baiona, azil. 26).

Gero gure Buruzagiak irakufi zigun Patricio de Orcaiztegi Tolosa'ko Apaiz-nagusiak idatzi zion ezezko erantzupena.

2. Aita Olabide'k zuzendutako autafkigintza-gai ta Eusko-lkaskuntza'rekiko yafundbide befia Euskaltzaindia'k aztertu ta onafu zituan. *Araudia*'ren bigafen ateraldiko gutunean aufki ditzaketzu.

3. Azkenik Euskaltzaindia'ri eman beaf zitzayon izenaz ta Araudia'ren azterpengai batzuez arduraz itzegin zan.

BEDERATZI TA AMARGAREN BATZARALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundia'ren jauregian, urtarilaren 8'an)

ALKIETAN: Azkue, Broussain, Campion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo ta Cincunegui euskaltzaiñ ufgazlea.